

Argitaratzailea: Innobasque - 2011

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Bizkaiko Teknologi Parkea
Laida Bidea 203, 48170 Zamudio

Lege gordailua: B1-1558/2011



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:

Aitortu–Ez merkataritzarako–Lan eratorririk gabe 3.0 Unported

(informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Disenua: Doble Sentido

Talentua erakartzea Euskadin

Funtsezko faktoreak eta adierazleak

Aurkibidea

1. Erreferentzia-esparrua	6
2. Ikerkuntza-helburuak	8
3. Ikerkuntzaren planteamendu metodologikoa	10
4. Emaizak	12
4.1. Antolaeren arduradunak	13
4.1.1. Antolaeren ezaugarriak	13
4.1.2. G.H.L.en txertatzea eta ez txertatzea 2010ean	16
4.1.3. G.H.L.ak antolaeran txertatze-prozesua	23
4.1.4. Esperientziaren balioespena	27
4.1.5. G.H.L.ak Euskaditik kanpo erakartzeko hobetze-arloak	28
4.1.6. G.H.L.ak antolaeretan txertatzeko beharren prospekzioa	30
4.2. Gaitasun Handiko Langileak (G.H.L.), Euskadiz kanpotik datozenak	36
4.2.1. Euskadin egoiliar diren G.H.L.en soslaia	36
4.2.2. Euskadin kokaturiko antolera batean txertatze-driverrak	40
4.2.3. Erraztasunak eta zailtasunak kontratatze- eta abegia egite-prozesuan	42
4.2.4. Esperientziaren balioespena (pertsonea/profesionala)	44
4.2.5. G.H.L.ak Euskaditik kanpo erakartzeko hobekuntza-arloak	46
4.2.6. Talentudunak erakartzeko prospekzioa	46
5. Azken gogoetak	48

1. Erreferentzia-esparrua

Honako txosten honek Innobasquetik egindako azterlanaren emaitza nagusiak jakinarazten ditu, Gaia Ikerketa eta Aholkularitza E.M.S.aren laguntza teknikoarekin, Euskadira talentudunak erakartzeari buruz.

Lan honekin osatu eta jarraitu egin nahi izan da 2009an burututako azterlana, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Sailari atxikitako bizkaia: xede-ren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Ezagutza Gizartearen Sailari, Arabako Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Sustapen Ekonomikoko Sailari eta Innobasqueren ekimenari eta laguntzari esker Euskadiz kanpotik datorren eta gure antolaeretan txertatzen den Gaitasun Handiko Langileen (G.H.L.) balioespena eta gogobetetasuna ezagutzeari buruzkoa.

Helburua da on line segimenduko lanabes bat izatea beste erregio edo herrialde batzuetatik etorritako Gaitasun Handiko Langileak (G.H.L.) euskal enpresek eta erakundeek atzematearen urteroko bilakaera I+G+b-ko arloetan.

Horregatik, nola antolaeren hala 2010ean txertatutako G.H.L.en lankidetzan izan da, izan ere ikerkuntzan esku hartu dute inkesta bat ezartzearen bitartez.

2. Ikerkuntza-helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia hau da:

On line segimenduko lanabes bat izatea gure enpresek eta erakundeek I+G+b alorretan erakartzen duten eta beste erregio eta herrialde batzuetatik datorren Gaitasun Handiko Langilearena (G.H.L.), Euskadira talentudunak erakartzea baldintzatzen duten faktoreak ezagutzeko.

Horrekin batera, beste helburu batzuk ere ezarri dira:

- Soslai horren txertatze-driverrak detektatu edo ez euskal antolaerei.
- AMIA azterketa bat burutu; lan- eta pertsona-esperientziaren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak.
- Hobetze-arloak identifikatu, nola erakartzean, kontratatzean hala abegia egitean.
- Antolaeren beharren prospekzio bat egin soslai horri dagokionez.

3. Ikerkuntzaren planteamendu metodologikoa

IZAERA KUANTITATIBOKO METODOLOGIA BAT

On line Inkesta

Metodologia

On line inkesta galdera ireki eta itxien inguruan artikulatua guztira 245 antolaerari egina. Galdesortarako bi sarbide-lotura motarekin: bata antolaerentzat eta bestea, G.H.L. entzat.

Galdesortak gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz izan ziren.

Gainera, on line landa-lana indartu egin zen telefono pertsona esku-hartzaileen bidezko jarraipenarekin.

Unibertsoa

Bi unibertso daude:

1. Giza Baliabideen Arduradunak edo baliokideak euskal antolaeretan, beste erregio edo herrialde batzuetatik etorritako Gaitasun handiko langileak 2010ean txertatu dituztenak edo ez.
2. Euskadiz kanpoko Gaitasun Handiko Langileak (G.H.L.) euskal antolaeraren batera etorritakoak I+G+b gaietan.

Lagina

Azterketaren gai ziren antolaeren unibertsoaren % 30 inguruk on line bidez erantzun zion, edo bestela telefono bidezko jarraipenaren bitartez gure galdesortari.

Gaitasun handiko Langileei (G.H.L.) dagokienez kalkulaturako unibertsoaren %20k galdesorta bete zuen.


Azterlana egite-datak

Urria-azaroa 2010.

4. Emaitzak

4.1. Antolaeren arduradunak

4.1.1. Antolaeren ezaugarriak




Kontsultan lankide izan diren antolaerak izaera desberdinekoak dira: teknologia zentroak (%14,7), KIZak (%4,4), OBIZak (%4,4), unibertsitateak (%8,8), ikerkuntzako erakunde publikoak (%4,4), fundazioak (%2,9), etab.

2010 urte honetan enpresen esku-hartzea nabarmendu dezakegu guztiaren %27,9arekin.


Eta, “beste batzuk” kategoriaren barruan (%13,2): elkartek, enpresa sustapen eta berrikuntza zentroak, prestakuntza zentroak, etab.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Antolaeren kokaguneari dagokionez hemen biltzen dira: teknologia elkartegian (%30,9), hiri-ingurunean (%22,1) eta, maila apalagoan, industria poligonoan (%16,2), enpresa elkartegian (%16,2) eta unibertsitate-kanpusetan (%14,7).

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Antolaerak tamainari dagokionez aztertzean, ehuneko handiena 10etik 49 pertsona enplegatu bitarteko kopurua dutenek hartzen dute (%45,6). Ondoren datoz 50tik 249ra bitarteko segmentuko enpresak %26,5ekin.

Antolaeren %22,1ek 10 pertsona enplegatu baino gutxiagokoak dira.


Eta %1,5ek 249tik 499ra bitartekoa kopurua du.

Eta %4,4 dira tamaina handieneko entitateak 499 pertsona enplegatu baino gehiagorekin.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Antolaera horiek lurralde historikoen arabera banatzean, %42,6 Gipuzkoan daudela ageri da, Bizkaian kokatzen dira %41,2, eta Arabari dagokio %16,2.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Aztertutako beste faktoreetako bat antolaeraren antzinasuna izan zen. Hala, antolaeren %48,5ek duela 10 urte baino lehenago hasi zuen bere jarduera, %36,8k duela 6 eta 10 urte bitartean, %10,3k 2 eta 5 urte bitartean, eta % 4,4k bi urte baino gutxiago dela.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Antolaeren %30,9k I+G+b dauka jarduera nagusitzat jakintzagai desberdinetan: bioteknologia, biomedikuntza, energia, ingurumena, IKTak, etab. Beste %27,9k ikerkuntza oinarrizkoa eta aplikatua, %17,6 kontsultoria eta aholkularitzaren barruko jardueratan aritzen da: pertsonak, ingurumena, enplegua, teknologia berriak, enpresak, etab. barrutietan, %8,8 Irakaskuntza-ikerkuntza arloari dagokio, eta industria-enpresek %8,8 hartzen dute.

4.1.2. G.H.L.en txertatzea eta ez txertatzea 2010ean


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Galdetu zaienean 2010ean Euskadiz kanpoko Gaitasun Handiko Langilerik txertatu duten ala ez (G.H.L.) %29,4k baietz erantzun du. %70,6k baietzatzen du ez duela txertatu soslai horretako langilerik 2010ean.


Euskadiz kanpoko G.H.L.rik 2010ean txertatu ez duten antolaerak

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Soslai mota horretakorik 2010ean txertatu ez duten antolaeren %70,6rentzat zergatiko nagusiak hauek dira:

- Galdetu zaien antolaeren % 30,8k dio ez duela izan 2010ean soslai mota hori txertatzeko beharrik.
- %25,6k uste du izan duten eskaintza-soslaia Euskadin aurkitzen dela.
- %12,8k aipatu du beste entitate batzuen mendean daudela kontratatze-politiketan.
- % 10,3k dio ez duela egin kontrataziorik abagune ekonomikoarengatik eta %7,7k ez duelako azpiegitura-proiekturik soslai hori txertatzeko.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Hala ere, azterlanaren emaitzek erakusten dute, 2010ean soslai hori kontratatu ez duten antolaeretatik, ia %30ek egin duela aurreko urteetan. %70,8k, ez.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Baina, aurreko urteetan soslai hori txertatu duten ala ez kontuan hartu gabe, 2011 edo 2012an egitea aurreikusita duten galdetzean, %31,3k baietz erantzuten du, %6,3k ez daki, eta %62,5ek ezetz erantzuten du.

Euskadiz kanpoko G.H.L.rik txertatu ez duten 10 antolaeretatik 3k aurreikusita dauka 2011-2012an hori egitea.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L. ei egindako inkesta




Soslai hori 2011 edo 2012an ez txertatzea aurreikusita ez edukitzearen zergatiko nagusia hau da: “soslai mota horren beharrik ez dutela kontsideratzen dute” (%43,5).


Ondoren %26,1ek dio “ez duela aurreikusita soslai mota hori kontratatzea”. Arrazoi ekonomikoak %13,0 dira.

Euskadiz kanpoko G.H.L.rik txertatu duten antolaerak 2010ean

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L. ei egindako inkesta




Soslai hori txertatu duten antolaerek, %50ek lehen aldiz egiten du 2006 eta 2010 bitartean. %38,9k 2001etik 2005era bitartean eta %11,1ek 2000 urtea arte.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

2010ean kontsultatutako antolaeretan beste erregio edo herrialde batzuetatik txertatutako Gaitasun Handiko Langileen ehuneko-banaketa aztertzean, ageri da %55,0k pertsona bat txertatu duela. %25ek 2-3 pertsona izan ditu, eta % 20,0k gaitasun handiko 4 pertsona edo gehiago.




2010ean antolaerek txertatutako G.H.L.en batezbestekoa 1,8 da.

Ildo horretatik, ikusten da gutxitu egiten dela 2009arekiko batezbestekoa, nahiz eta aurreko urteetako goranzko lerroak jarraitzen duen (2007-2008).

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


* Txertatutako G.H.L.en eta antolaeren kopuruaren gainean kalkulaturako batezbestea. Bi antolaeren datuak baztertuta: Creativity Zentrum eta ESS-Bilbao Partzuergoarenak, batezbestea hutsaltzen dutelako.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Kontsultaturiko euskal antolaerek 2010ean txertaturiko Euskadiz kanpoko GHL guztizkotik, %34,0 emakumeak dira.


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Jatorriaren arabera (herritartasuna), G.H.L.en %40,4 EB-27ko guneko herrialdeetakoak dira, herrialde desberdinetan banatzen direlarik: Frantzia, Alemania, Italia edo Erresuma Batua.

Azpimarratzekoa da urte honetan detektatu dela “Europaren ekialdeko herrialde” deitutako profesionalen kopuru esanguratsua txertatu dela.


%36,8 jatorri espainiarrekoak dira, edo euskal herritar itzuliak edo beste autonomia-erkidego batzuetakoak, “Hirugarren herrialdeetakoak” % 22,8 dira.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Azken urteotako G.H.L.en jatorriaren araberako txertatzea erkatzean, 2010ean ageri da EB-27 guneko herrialdeetatik datozen G.H.L.en ehuneko gehitu egin dela.

Ehuneko hori gutxitu egin da jatorri espainiarreko G.H.L.en kasuan eta gehitu egin da zertxobait Hirugarren herrialdeetatik datozen G.H.L.en ehunekoak.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

2010ean txertaturiko G.H.L.en %26,6k goi-mailako unibertsitate-ikasketak ditu (lizentzia) eta %23,4k Goi-ingeniaria.

%14,1 doktorea da eta %12,5ek Masterra du.

%18,8 doktoregaiak dira.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

2010ean txertatutako GHLei dagozkien ezagutza-arloak hauek dira:

- %16,0 Zientzia Zehatzak eta Naturalak.
- %38,7 Ingeniaritza eta Teknologia.
- %21,3, Medikuntza-zientziak, Farmazia barne.
- %8,0 Gizarte Zientziak eta Juridikoak eta Humanitateak.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

2010ean aztertutako antolaeretan txertaturiko Euskadiz kanpoko Gaitasun Handiko Langileetatik:

- %64,9 langile ikertzailea da
- %27,3 profesionala da, eta
- %7,8 beka-programen bitartez iristen da.


(*) Ikertzailea: Zientzialariak edo ingeniariak dira ezagutza, produktu, prozesu, metodo eta sistema berriak pentsatzen edo sortzen direnak. Halaber hor sartzen dira kudeatzaileak eta administratzaileak ikertzaileen laneko aspektu zientifikoak eta teknikoak planifikatzen eta kudeatzen aritzen direnak ere.

Eskuarki, goi-mailako unibertsitate-titulua mailako prestakuntza izaten dute, baina inkesta honetarako, sail horretan sartzen dira aipaturiko titulua jabe ez diren pertsona guztiak, maila horri dagozkion lan-postuak baldin badituzte.

(**) Profesionala: Ezagutza, produktu, prozesu, metodo eta sistema berriak pentsatzen edo sortzen tarteko profesionalak dira. Halaber, hor sartzen dira enpresetako I+G+b aspektuen plangintza eta kudeaketan aritzen diren kudeatzaileak eta administratzaileak ere.

(***) Bekadunak: Graduondoko ikasleak dira ikerketa-bekadunak direnak, eman zaien beka mota eta eman duten erakundeak kontuan hartu gabe, baldin eta I+G+b jarduerak burutzen badituzte.

4.1.3. G.H.L.ak antolaeran txertatze-prozesua



Antolaerei galdetzean Euskadiz kanpoko Gaitasun Handiko Langileak (G.H.L.) txertatzeko beharra edo aukera planteatzeko izan zituzten zergatikoez, hiru zio nagusi nabarmendu ziren:

1. Proiektu bat lideratzera zetorren pertsona zehatz bat zen (%30,8).
2. Bilatzen ari ziren soslai profesionalari doitzen zitzaizkion profesional autoktonoen gabezia (%15,4).
3. Ikertzaile-teknikarien truke bat egiteko (%12,8).

“Beste batzuk” sailean (%10,3) zergatik hauek daude: antolaerari curriculuma bidaltzea, ikerketa-lerro berriak irekitzea, etab.

Kontratazio-driverrei dagokienez zio sor bat bezala “enpresa-kulturaren aldaketa bat” nabari da (“beste herrialde batzuetako profesional-ekipoak izatea, %7,7an edo “antolaera kanpoko ikertzaileengana irekitzea, %5,1ean”).

Soslai profesional horren kontratazio-prozesua kudeatzerakoan antolaera hauek aurkitu dituzten zailtasun edo balazten artean, EB-27ko herrialdeetako herritartasuna duten profesional-ikertzaileen kasuan, bi aipa daitezke:


1. Lan-baldintzak eta, soldatarenak bereziki, antolaeren %27,8rentzat zailtasun bat dira Euskadiz kanpoko Gaitasun handiko Langileak kontratatze. Maila ekonomikoan beste eskaintza batzuekin lehiatzea “desabantaila” bat da beste eskaintza batzuen aurrean, batez ere maila edo esperientzia handiagoko soslai jakin batzuetan.
2. Ostatu-hartzearen gaia (etxebizitza) kasuen %22,2an balazta bat da kontrataziorako bat: eskaintza hartzean Euskadiko etxebizitzaren aukerei eta prezioei buruzko informazioa bidaltzean, iristen direnean

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

eta Euskadin lehen egunak ematean eta ondoren bakoitzaren behar eta baliabide ekonomikoetara egokitzen den etxebizitza bat hautatzean.

Bi horien ondotik, beste zailtasun batzuk datoz, esaterako Gizarte Segurantzarena (%16,7), homologazioa akademikoena eta habilitazioarena (%11,1).


Asimilatze sozio-kulturala edo Euskadiren kanpo-irudia ere balazta dira soslai horren kontratazioa kudeatzerakoan.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Hirugarren herrialdeetatik datozen langileak kontratatzerakoan, sortzen zaizkien arazoak, garrantziaren arabera hurrenkeran, hauek dira:


1. Bisatuak kudeatu eta lortzea (egoitza- eta lan-baimenak) da zailtasunik handiena Hirugarren herrialdeetatik datorren langileriaren kontratazioa kudeatzeko (%30,8).
2. Gizarte-segurantza aitortzea ere balazta bat da antolaeren %32,1entzat.
3. % 15,4rentzat beste zailtasun bat izapidetza administratiboak eta burokratikoak dira titulazio akademikoak eta gaikuntza homologatzeko.
4. Beste %11,5ek uste du ostatu bat (etxebizitza bat) soslai horren beharrei egokitu zaiena aurkitzea dela zailtasuna: lantokitik hurbiltasuna, prezioa, etxebizitza mota, etab.
5. Asimilatze sozio-kulturala (hizkuntza, ohiturak, gizarte-ohiturak, etab.) %11,5entzat ere zailtasun bat dira.



Antolaera kontratatzaileek GHLak Euskadi kanpo kontratazioak burutzeko informatzeko erabilitako bitartekoak aztertuta nabari da antolaeren %38,7k beren kabuz bilatzen dute informazioa Euskadiz kanpoko G.H.Lak kontratatzeko. %29,0 harremanetan jarri da Lan eta Immigrazio Ministerioarekin.


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

%22,6 tokiko entitateekin, esaterako, bizkaia: xede, Innobasque edo Ikerbasquerekin harremanetan jarri da. Antolaeren gainerakoa, zeinek %9,7 suposatzen baitu, unibertsitateak hartzen ditu bere baitan, zeinetan beraiek arduratzenbaitira informazioa, hautespen-enpresak, enpresa-elkarteak eta abar. eskuratzeaz



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Antolaerei galdetzean kanpoko laguntzarik izaten duten Euskadiz kanpoko G.H.L.en kontratazioa egiteko edo kudeatzeko, %74,1ek dio, ezetz.

Aitzitik, gainerako %25,9k baieztatzen du izaten duela kanpoko laguntzaren bat: hautespen-enpresak, asesoratzea eta aholkularitza, entitate espezializatuak, etab.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Aztertutako beste aspektuetako bat abegi-protokoloa da. Aztertutako antolaeretatik, %58,8k dio baduela abegia egiteko protokolo bat finkatua antolaeran Euskadiz kanpotik datozen G.H.L.entzat, baina %41,2k dio, ezetz.

Protokolo hauetako gaiak hauek izan ohi dira: ongietorria, arduradunen eta ekipoaren aurkezpen formala, dokumentazioa eskuratzea, antolaerari eta inguruneari buruzko informazioa, etab.

4.1.4. Esperientziaren balioespena


Beren esperientzia balioestean, antolaera bezala, Euskadiz kanpoko G.H.L.en kontratatze-prozesuari dagokionez, aspektu baikor batzuk nabari dira, besteak beste: beste herrialde batzuetako esperientzia profesionalak izatea (%30,8) edo aberastea, nola ezagutza hala ekipoen eta enpresen esperientzia (%30,8).



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


Esperientziaren balioespenean kontuan hartzen diren aspektu ezkorren artean %45,5ekin gailentzen da beharrezko izapidea.

Administratiboak eta burokratikoak kudeatzeko zailtasuna.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

4.1.5. G.H.L.ak Euskaditik kanpo erakartzeko hobetze-arloak




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L. ei egindako inkesta


Antolaera desberdinek Euskadiz kanpotik datozen Gaitasun Handiko Langileak kontratatzerakoan gomendatzen dituzten hobetze-alor nagusiak honela taldekatzen dira:

1. Langile atzerritarrak kontratatzeke izapide administratiboak eta burokratikoak bizkortu, erraztu eta sinpletzea. (%40,0).
2. Lehiakorrak izan ahal izatea hitzarmen-baldintzetan, batez ere soldatetan (%24,0).
3. Antolaerei laguntzea abegia egite- eta instalatze-prozesuetan (azpiegiturak/ ekipamenduak sortuz) (%20,0).
4. Integrazio sozio-kulturaleko prozesua erraztea (16,0%).

Eta, Euskadiz kanpoko G.H.L.ak erakarri eta iraupena erraztu ditzaketen aspektuak honako grafikoan islatzen dira:




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Gainera, kasu gehienetan, antolaeren % 91,7k eutsi egiten diete Euskadiz kanpoko G.H.L.ekiko harremani, lanean aritu eta gero, %8,3k, haiek antolaeratik alde egin eta gero.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L. ei egindako inkesta



Alde egin duten Euskadiz kanpoko G.H. L.ekiko harremanei eusteko antolaerek gehien erabiltzen dituzten bitartekoen artean hauek daude: Alde egin duten Euskadiz kanpoko G.H.L.ekin harremanetan jarraitzeko antolaerek erabilitako bitarteko sarrienak hauek dira: Interneta-posta elektronikoa (%68,8), lankidetzataldeak(%18,8), eta telefonoa (%12,5).

4.1.6. G.H.L.ak antolaeretan txertatzeko beharren prospekzioa


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L. ei egindako inkesta



Aztertutako antolaeretatik, %51,25ek datozen bi urteetan (2011-2012) Euskadiz kanpoko Gaitasun Handiko Langileak txertatzeko aurreikuspenak ditu.

Eta %36,8k dio ez duela beharrik izango.


Eta %11,8k dio ez dakiela txertatuko duen ala ez soilari hori.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


Euskadiz kanpoko G.H.L.langileak txertatzeko aurreikuspenek 2011-2012 aldirako antzeko ehunekoak aurkezten dituzte.

Eta zerbait handiagoa da 2011 urteko zenbatespena %54,2koa.



Ageri da soslai horren txertatze-aurreikuspena 2011 eta 2012rako galdetutako antolaeretan esanguratsua dela, antolaera bakoitzeko profesionalen batezbestekoa 2,9koa 2011n eta 2,5koa 2012an delarik.


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Eskari horren soslai akademikoa honako kategorietan biltzen da: Goi-ingeniaritza (%22,2) eta Lizentziak (%17,8)

Doktoreak %11,1ean eskatzen dira, eta Masterdun langileak, %6,7an.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Nabari da nola 2011-2012rako G.H.L.en eskaria ezagutza-arloen arabera, gehiago biltzen dela Ingeniaritza eta Teknologiarekin zerikusia duten arloetan (%29,5) eta Gizarte Zientzietan eta Zientzia Juridikoetan (%26,2).

Halaber, nabaria da Zientzia Zehatzen %16,4^a ere.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


Aurreikusitako eskaintzen erdiak baino gehiago Ikertzaileei zuzenduak dira (%54,1). Profesionalari, %29,7 eta Bekadunei, %16,2.

(*) Ikertzailea: Zientzialariak edo ingeniariak dira ezagutza, produktu, prozesu, metodo eta sistema berriak pentsatzen edo sortzen ari direnak. Halaber hor sartzen dira kudeatzaileak eta administratzaileak ikertzaileen laneko aspektu zientifikoak eta teknikoak planifikatzen eta kudeatzen aritzen direnak ere.

Eskuarki, goi-mailako unibertsitate-tituluaren mailako prestakuntza izaten dute, baina inkesta honetarako, sail horretan sartzen dira aipaturiko tituluaren jabe ez diren pertsona guztiak, maila horri dagozkion lan-postuak baldin badituzte.

(**) Profesionala: Ezagutza, produktu, prozesu, metodo eta sistema berriak pentsatzen edo sortzen murgildutako profesionalak dira. Halaber, hor sartzen dira enpresetako I+G+b aspektuen plangintza eta kudeaketan aritzen diren kudeatzaileak eta administratzaileak ere.

(***) Bekadunak: Graduondoko ikasleak dira ikerketa-bekadunak direnak, eman zaien beka mota eta eman duten erakundeak kontuan hartu gabe, baldin eta I+G+b jarduerak burutzen badituzte.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Gainera, azpimarratu behar da antolaerek gero eta neurri handiagoan eskatzen dutela gaitasun handiko esperientzia profesionala duten langileak eskatzen dira, (%68,2), antolaeren %22,7k, bi soslaiak eskatzen ditu, esperientzia profesionalarekin edo gabe, eta %9,1ek ez du beharrezko ikusten esperientzia profesionala izatea.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Ildo horretatik, antolaeren %54,5entzat eskatutako esperientzia profesionala beste herrialde batzuetan egikaritua izan behar du %27,3rentzat hori ez da betebeharreko baldintza eskaintako posturako, eta %18,2k ez daki esperientzia horrek beste herrialde batzuetan izan behar duen ala ez.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Esperientzia profesionaleko urte kopuruari dagokionez, ehuneko esanguratsuena 3 urte baino gutxiagoan kokatzen da (%47,4). 3 eta 5 urte bitartean %36,8rentzat. 5 urte baino gehiago dira beharrezko, %15,8rentzat.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Antolaerek gehien eskatzen dituzten esperientzia profesionaleko arloak, Ikerketa aplikatuari buruzkoak dira %44,4, Ingeniaritza-arloak %22,2, Energia eta Ingurumen-gaiak %16,7 eta Gizarte Zientziak %11,1.

4.2. Gaitasun Handiko Langileak (G.H.L.), Euskadiz kanpotik datozenak


4.2.1. Euskadin egoiliar diren G.H.L.en soslai

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




2010ean Euskadin kokaturiko antolaeraren batean lan egitera etorri diren beste geografia-guneetako gaitasun handiko profesionalen %75,0, gizonezkoak dira., gainerako %25,0 emakumezkoak direlarik.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Haien jatorria aztertuz ageri da %40,0k herritartasun espainiarra dutela, %50,0 Europako Batasunetik datozela (EB-27) eta gainerako %10,0 beste Hirugarren herrialdeetatik.


Profesional-ikertzaile espainiarren taldean, horiek estatuko erregio desberdinetan dute jatorria: Madril, Valentzia eta Euskal Herria.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Egoitza izan duten azken herrialdeaz galdetzean ehunekoak aldakorrek dira, Europako Batasuneko herrialdekoei buruzkoa hazten delarik %60raino.

Horrek adierazten digu, profesional edo ikertzaile espainiarren ehuneko esanguratsu batek, euskal herritarrek haien artean, Europako beste herrialde batzuetan izan dutela aurreko beren esperientzia profesionala.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Galdetutako G.H.L.en azterketak islatzen du %70k ia urtebete daramala (2010) bere antolaeran lanean, eta %20k 3 eta 6 hilabete bitartean. Eta %10ek 3 hilabete baino gutxiago.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




G.H.L.en batez besteko adina 31tik 40 urtera bitarteko segmentuan bildurik dago (%50,0). Ondoren datoz 21etik 30 urtera bitarteko profesional-ikertzaileak (%30,0).


Gainerako %20 41-50 urte bitartean banatzen da (%10) eta 50 urte baino gehiagokoen artean (%10).

10etik 8k 40 urte baino gutxiago ditu

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Euskadin duten familia-egoerari dagokionez profesionalen erdiak bakarrik etorri dira, %30 bere bikotekidearekin eta gainerako %20,0 bere bikotekidea eta seme-alabekin etorri da.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


Gainera, Euskadiko GHLen maila akademikoa aztertuz, %60,0k doktore-maila duela ikusten da, %20k Goi Ingeniaritza, %10 doktoregaia da eta %10el lizentzia du.

10etik 6 doktoreak dira



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Ezagutza-arloari dagokionez, %40,0 Ingeniaritza- eta Teknologia- arlokoa da, beste %40,0 Zientzia Zehatz eta Naturaletakoa da, %10,0 Medikuntza Zientziatakoa da eta beste % 10,0 Gizarte-Zientzien eta Zientzia Juridikoen arlokoa.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Txertatu diren antolaerei dagokienez, %70,0ek ikertzaile-funtzioa betetzen du, %20,0k profesionalarena, eta %10,0 bat bekaduna da.


4.2.2. Euskadin kokaturiko antolaera batean txertatze-driverrak



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta


Euskadin kokaturiko antolaera batera lan egitera etortzeko eskaintzaren jatorria aldakorra da. %80,0rentzat aurretik bazegoen ezagutza motaren bat antolaeraren aldetik: "harremanetan jarri ziren", "pertsona bat ezagutzen nuen" edo "elkar ezagutzen genuen".

%10,0ek alde aurretik hautagaitza bidalia zuen eta beste %10,0 bat eskaintza baten bitartez izan zen.



Profesional-ikertzaile horiek euskal antolaera batean lan egitera eramaten dituen driverra edo zioak “eskaintako proiektuaren interesean” datzala batez ere ikusten da, (%31,3) eta “hazkundera-esperientzia profesionala”ren aukeran (25,0%).


Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta



Euskal eskaintzaren aspektu desberdintzaileen barruan beste batzuekiko, haren aldeko puntu nagusia eskaintako proiektu-gaia-postua bera da, %41,7an. 33,3% lan- eta profesio-baldintzak hobetzea da beste aspektu diferentzial bat. Eta antolaera Euskadin egon izana ere beste arrazoi bat da, %16,7 herrialdeko I+G+b ikuspenarekin batera (%8,3).

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

4.2.3. Erraztasunak eta zailtasunak kontratatze- eta abegia egite-prozesuan




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

G.H.L.ak, beren kontratatzearen eta antolaeran txertatzearen kudeatze-prozesuan zehar, erraztasun desberdinekin topo egin dute.

Batez ere, %58,3rentzat formaltasun administratiboak kudeatzerakoan jasotako laguntza izan da: bisatuak, dokumentazioa, osasuna, zergak, etab.

Eta ondoren ohituretara egokitzeko laguntza (%25,0) eta bere instalatzean izan duen laguntasuna (16,7) ondoren datozelarik.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Bestaldetik zailtasun eta balazta batzuk ere aurkitu dituzte beren kontratatzea eta beren instalazioa kudeatzerakoan.

Jatorriko europarreko talentudunen (EB-27) eta Hirugarren herrialdeetakoak desberdindu ahal izan direlarik.

Hala, EB-27ko G.H.L.en artean, hauek izan dira aipatutako zailtasun nagusiak:

- Ostatua bilatzea (%38,1).
- Lan- eta soldata-baldintzak balazta bezala hautematen dira %19,0rentzat.
- Euskadi alde aurretik ez ezagutzea (%14,3).
- Euskadiko I+G+b-ri buruz kanpoan informazio urria izatea beste zailtasunetako batzuk dira hura kontratatzerako unean.




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Hirugarren herrialdeetatik datozen G.H.Len kasuan, aurkitzen dituzten zailtasun edo balazten hierarkizazioa desberdinak dira EB-27ko herritartasuna duten talentudunek dituztenen aldean:

1. Ostatua hartzea da halaber lehen zailtasuna, nahiz eta kolektibo horren kasuan %27,8ra iristen den.
2. Bisatuen kudeaketa (lan- eta egoitza-baimenak) (% 16,7) ere zailtasun garrantzitsua da.
3. Eta kudeaketekin zerikusia duten hauek daude: Gizarte Segurantzaren ezagutza (%11,1) eta Titulazio Akademikoen eta Gaikuntzaren homologazioa (%11,1).

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Euskadin lan egitera etortzeko beharrezko izapidetzez informatzeko gehien erabili duten bidea antolaera bera da, kasuen %50,0ean bera arduratu baita txertatze-kudeaketaz. %33,3k iturri eta entitate desberdinetan bilatu du informazioa bere kabuz. Eta %16,7 kanpoko entitate batekin harremanetan jarri zuten izapidea eta zalantza guztiak kontsultatu ahal izateko.


4.2.4. Esperientziaren balioespena (pertsonea/profesionala)

Beren esperientzia, nola pertsonala hala profesionala, balioestean kontratatze-eta txertatze-prozesuari dagokionez, aspektu baikorrak eta ezkorrak nabaritu dira. Aspektu baikorren artean honako grafikoan adierazten direnak hauek nabarmentzen dira:

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Eta aspektu ezkorren artean, honako hauek daude:



Beren esperientziaren balioespen gisa, bai aspektu baikorragoen eta ez hain baikorren aldetik, nabari da horiek honetan biltzen direla:

- Antoleraetik harremanean sartze-unetik, kontratatzearen kudeaketan, abegia egitean eta txertatzea jasotako laguntza.
- Beren esperientziako aspektu ez hain baikorrak “bizitza pertsonalarekin” zerikusia dutenak dira: ostatua hartzea, izapidea jakin batzuk egitea edo hizkuntza.

Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta




Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Esperientzia baikorki balioesten da, zeren eta geografia-gune batzuetatik datozengaitasun handiko profesionalen %70k, Euskadiko antolaera desberdinetan lanean ari direnek, baieztatzen dute beren asmo profesional eta pertsonalak bete direla. Beren iguripenak beteta ikusi ez dituzten %30,0k dio asmo horiek ez direla bete. Gogobeterik ez egoteko zergatik nagusia da bere iguripen profesionalak beteta ez ikusi izana dela (proiektuaren garapena edo antolaerara egokitzea) eta pertsonalak (ingurunean integratzea).

4.2.5. G.H.L.ak Euskaditik kanpo erakartzeko hobekuntza-arloak

Geografia-gune desberdinetatik datozen G.H.L.ek hobetzea gomendatzen duten arlo nagusiak hauek dira: alde batetik, izapidea administratiboak eta burokratikoak (%37,5) eta prozesuaren planifikatzea hobetzea (%25,0) eta, bestetik instalazioan eta integrazioan laguntzea.



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

4.2.6. Talentudunak erakartzeko prospekzioa



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Inkestaturiko GHLen %60,0k dio ezagutzen dituela beste profesional edo ikertzaile batzuk Euskadiko antolaeraren batean lan egin nahiko luketenak. %40,0k ez ditu ezagutzen.


10tik 6k ezagutzen ditu Euskadin lan egiteaz interesaturik dauden beste talentudun batzuk.

Euskadira lan egitera etortzeko interesaturik dauden beste profesional ikertzaile batzuk ezagutzen dituzten G.H.L. kontsultatuen taldearen barruan, haiek erakartzerakoan garrantzitsuenak direla uste duten aspektuak nagusiki bi dira: soldata-baldintzen lehiakortasuna (%31,3) eta kontratatze- eta abegia egite-prozesuaren plangintza ona (%25,0).



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

Euskadin irauteari buruz haiek aipatutako faktore gakoak hauek dira: lan-egonkortasuna (%44,4), hazkunde profesionala (%22,2) eta soldata-baldintzak (%22,2).



Iturria: Euskadin kokaturiko antolaerei eta 2010eko G.H.L.ei egindako inkesta

5. Azken gogoetak

Azken gogoeta gisara, burututako azterketatik lortutako ideia batzuk azpimarra daitezke:

- Enpresen parte-hartzearen hazkunde garrantzitsua nabarmentzen da. Gertaera hori, 2010ean Euskadiz kanpoko G.H.L.ak kontratatu ez dituzten kontsulta antolaeretara irekitzeak azaltzen du, parte batez. Interesgarria izaki kontsultaturiko erakundeen izaera heterogeneoa izatea.

- Esku hartzen duten antolaeretatik, 10etik 7k ez dute txertatu soslai mota hori 2010ean, eta aipatu duten zergatikoa “soslai horren beharrik ez izatea” izan delarik. Baieztapen horrek gogoeta egitera garamatza “behar hori ez izateak” jatorria ez ote duen “antolaeraren abagunezko arrazoietan, non benetan 2010ean ez baitute eskatu soslai mota hori”, baina halaber antolaerei beste arazo bat agertzen zaie “komunikazio”arekin zerikusia duena, izaera horretako soslai bat kontratatzeari buruz dauden aukerena.

- Krisi ekonomikoko abagunea, 2010 markatu duena, halaber balazta bezala nabarmentzen da soslai mota hori kontratatzean. Eta, hori islatzen da Euskadiz kanpoko G.H.L.ak aurreko urteetan txertatu zituzten antolaeren ehunekoari buruzko datuetan eta, 2011-2012 urteetarako dauden aurreikuspenetan.

- Kontratatze-aintzatespenei buruz, antolaeren-ehuneko batek ez dauka aurreikusita soslai mota hori eskatzea zergatikoa nagusitzat “beharrik eza” indartuz. Antolaeren kolektiboan “kultura-gap” bat detektatu dela esan daiteke.

Baliabide ekonomiko mugatuak izatearen arazoa edo krisiaren abagune ekonomikoa ere driver bat profesional-soslai hori erakartzean balaztak seinalatzerakoan.

- 2010ean soslai hori txertatu duten antolaeren artean esan daiteke ikusten dela nola izan den zio nagusia Euskadiz kanpoko G.H.L.ak txertatzeko “proiektu bat gidatzea”, hau da, “lidergoak” eta “esperientziak” markatu dutela kontratatuaren soslaia.

Ikusten da nola euskal antolaerak iritsi diren “proiektu bat gidatzera datozen pertsona zehatzak kontratatu ahal izatera”, interesgarria delarik “beste soslai batzuk sartzearen” segimendua egitea.

“Eskaintako proiektua” kokatzen da G.H.L.engan driver nagusi bezala eta eskaintzaren aspektu desberdintzailea bezala Euskadira etortzea erabakitzerakoan.

Halaber, antolaeren indargune bezala nabari da “kanporanzko enpresa-kulturaren irekitze bat”, “herrialde desberdinetan esperientziak egiteko ekipook sortze aldera”.

- 2010ean txertaturiko soslai motak markaturik, parte batez, jasotzen da “euskal antolaeren lehiakortasuna nola den lan- eta soldata-baldintzei dagokienez” balazta bat kontratatzerakoan, batez ere EB-27tik datozen profesionalen kasuan. Mehatxu bat bezala seinalatuz beste erregio edo herrialdeekiko”.

Aurten berriz ere errepikatu dira zailtasunak, G.H.L.ek ere adieraziak, hala nola:

- Etxebizitza.
- Izapidea administratibo eta burokratikoaren kudeaketa.
- Asimilatze sozio-kulturala.
- Euskadiri buruzko informazioa eta dokumentazioa.

- Antolaerek bere gain hartzen jarraitzen dute neurri handiagoan kontratatze- eta abegia egite-kudeaketei buruzko informazioaren bilaketa, eta horregatik “izapidea administratiboak eta burokratikoak bizkortu, sinpletu eta erraztea” eta “abegia egite- eta instalazio-prozesuan antolaerei laguntzea” lehentasunezko hobetze-arloak dira.

Hobetze horiek berretsi egiten dituzte G.H.L. kontsultatuek, ez bakarrik beren esperientziari buruz baizik eta talentudunak erakartzeari buruz oro har.

- Indarrez agertzen da, lehiakorragoak izateko beharra kontratu-baldintzetan talentudunak erakartzerakoan.

- Eta euskal administratibotik I+G+b laguntzeko egiten den apustuan: ahalegin gehitu bat eginez kanporanzko irudian.

- Antolaerek beren esperientziaz egiten duten balioespenean azpimarratzen dira nola aspektu baikorrak hala ezkorrak. Baikorren artean nabarmenduz “antolaerak kanporantz irekitzea” eta “enpresen kultura-aldaketa”, kontuan hartzeko aukera baita.

Eta aspektu ezkorren artean “berritasun” bezala ageri da, eta era sor samarrean, “denborazkotasuna” edo “lan-egonkortasuna” eskainiz aspektu desberdintzaile bezala.

Aukera bat bezala ikus daiteke “egonkortasuna-proiektu baten jarraipena eskaintzea”.

“Izapidea burokratikoari” eta “abegia egitean eta integrazio soziokulturalan laguntzeari” buruzko aspektuak ahulgune nagusiak direlarik.

- Zeren eta euskal antolaeren eta talentudunen arteko “sarea” gure herrialdeko egonaldiaz harago mantentzen baita; “komunikazio eta kanpora saltzeko” abagune bat baita.

- 2011-2012rako eskariaren aurreikuspenari dagokionez, baikorra da eta batezbestekoa igoaraztera jotzen du. Soslai horren eskariak jarraitu egiten du, batez ere Ingeniaritza, Teknologia eta Zientziekin lotutako arloetako ikertzaileenak, bai eta Gizarte Zientzia, Zientzia Juridiko eta Humanitateekin lotutako arloetan.

